DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2025

EKONOMIA, LANA ETA ENPLEGUA

- Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik 2
- Diru-laguntzak enpresa- eta sindikatu-erakundeei beren jarduera-eremuei dagozkien gaietan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatu ditzaten 4
- Enpresetan berdintasun-planak negoziatzeko eta garatzeko berdintasun-batzordeak gaitzeko eta prestatzeko dirulaguntzen programa 6
- Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalei diru-laguntzak 8
- Gizarte-ekonomiako enpresetan asistentzia teknikoa 9
- Gizarte ekonomiari ekitea eta bertan sartzeko laguntzak 11
- Elkarte egiturak babestea 14
- Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak 16
- Enpresen arteko lankidetza 18
- Enpresaren erantzukizun soziala eta langileen parte-hartzea 20
- Enpresen eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen ahalduntzea sustatzea eta emakumeen talentua txertatzea helburu duten elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko gainerako entitateei 22
- Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak 24

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Erakunde sindikalentzako diru-laguntzak Lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean parte hartzeagatik

2.- Araua

237/2000 DEKRETUA, azaroaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Sindikatu Hauteskundeen Bulego Publikoa, Batzordea eta Ikuskaritza sortzen dituena.

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 8koa, Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuarena. Honen bidez hasiera ematen zaio azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako hauteskunde Sindikalen Batzordeko eta Lurralde Batzordeetan Partaide diren, bai eta dekretu honetan Araututako Ikuskaritza-Erregimenean parte hartzen duten sindikatuei ere, sindikatuentzako 2025 urterako diru-laguntzak emateko prozedurari.

Agindua, 2025eko uztailaren 2koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez 2025. urterako diru-laguntzak ematen baitzaizkie Sindikatu Hauteskundeen Batzordea eta lurralde-batzordeak osatzen dituzten erakunde sindikalei, bai eta azaroaren 28ko 237/2000 Dekretuan ezarritako ikuskapen-araubidean parte hartzeagatik ere.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2000/12/0005772a.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025002139

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003206

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek Hauteskunde Sindikalen Batzordean eta Lurralde-batzordeetan parte hartzeagatik, bai eta hauteskunde sindikalak kontrolatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna betetzeagatik ere, egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Diru-laguntza horietarako guztizko kreditua 816.817,00 eurokoa da, zeina Euskal Autonomia Erkidegoko 2025eko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legearen 3112 Programan, 11 Zerbitzuan, 45499 azpikontzeptuan, 19/3159 partidan ezarrita baitago, eta banatu da lurralde-batzordeak eta Hauteskunde Sindikalen Batzordea osatzen duten erakunde sindikalen artean.

Diru-laguntza horien bidez, lau sindikatuek Euskal Autonomia Erkidegoan 2025ean egindako hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko dituzten eginkizunak garatzeko egiten duten jarduera finantzatu da, bai eta lurralde-batzordeetan eta Sindikatu Hauteskundeen Batzordean parte hartzea ere.

2025. urtean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonek hauteskunde-prozesuen jarraipena egin dute, langileen eskubideak bermatzeko.

Sindikatu Hauteskundeen Batzordeak 2025. urtearen hasieran egin zuen ohiko bilera. Gainera, ezohiko hainbat bilera egin dira, urtearen gainerakoan planteatu diren gaietan akordioak lortzen saiatzeko

Lurralde Batzordeak behar izan den guztietan bildu dira. Hamabost egunean behingo ohiko bilerak normaltasunez egin dira. Bilera horietan hauteskunde-prozesuak, hauteskunde sindikalen aktak eta prozesu horiekin lotuta sortzen diren gorabeherak aztertu dira. Gainera, beharrezkoa izan denean, ezohiko bilerak telematikoki egin dira.

Era berean, sindikatu bakoitzak izendatutako pertsonek hauteskunde-prozesuen jarraipena egin dute, langileen eskubideak bermatzeko, bai aurrez aurre, bai telematikoki edo telefonoz, inguruabarren arabera.

Aurrekontu Programan Hauteskunde Sindikalen Batzordeen 60 bilera egitea eta hauteskunde-prozesuen jarraipena egiteko 1.200 jarduketa egitea aurreikusita zegoenez, Hauteskunde Sindikalen Batzordearen jarduera indartzeko helburua bete dela esan daiteke.

Ordezkaritza handieneko sindikatuek lurralde-batzordeetan eta Hauteskunde Sindikalen Batzordean presentzia aktiboa izateak eta hauteskunde-prozesuak kontrolatzeko eta zaintzeko lanetan parte hartzeak prozesu horiek eta lortutako emaitzak behar bezala egiten direla bermatzen dute.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Izapidetutako espediente-kopurua	4	4

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Diru-laguntzak enpresa- eta sindikatu-erakundeei beren jarduera-eremuei dagozkien gaietan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatu ditzaten

2.- Araua

232/2021 DEKRETUA, azaroaren 9koa, enpresa- eta sindikatu-erakundeentzako dirulaguntzak arautzekoa, beren jarduera-esparruei dagozkien gaietan erakunde horiekin lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak garatzeko

AGINDUA, 2025eko ekainaren 18koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez azaroaren 9ko 232/2021 Dekretuan aurreikusitako laguntzen 2025rako deialdia egiten den; dekretu horren bidez, sindikatuei eta enpresa-erakundeei diru-laguntzak ematea arautzen da, beren jarduera-eremuei dagozkien gaietan elkartutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko prestakuntza-planak gara ditzaten.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2021/11/2105870e.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025002943

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak enpresa- eta sindikatu-erakundeen prestakuntza-planen garapena diruz laguntzera bideratuta daude, haien jarduera-eremuetako berezko gaietan giza baliabideen kualifikazioa hobetzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurreikusitako zenbatekoa honako hau da: 809.306,00 euro, ordainketa-kredituko 566.514,00 euro 2025eren kargura eta konpromiso-kredituko 242.792,00 euro 2026ko ekitaldirako. Zenbateko hori banatu da erakunde sindikalen eta enpresaburu-elkarte eskatzaileen artean.

Diru-laguntzak emanez enpresa- eta sindikatu-erakundeek aurkeztutako prestakuntza-planak finantzatu dira, haiei lotutako pertsonen kualifikazioa hobetzeko beren jarduera-eremuetako berezko gaietan.

Enpresa- eta sindikatu-erakundeen barne-prestakuntzarako programak indartzera, integratzera eta haien koherentzia sustatzera zuzenduta daude laguntzak, baliabide egoki bihurtu daitezen haien koadro eta langileen kualifikazioa lortzeko, eta horrela egoera soziolaborala hobetzeko ekarpena egin dezaten ere sustatzen da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Espedienteak izapidetzea	10	8
Ikastaroak proposatutako helburuetara egokitzen direla kontrolatzea	850	798
Irakasleen egokitasuna eta parte-hartzaileen bertaratzeak gainbegiratzea	24.600	16.079

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresetan berdintasun-planak negoziatzeko eta garatzeko berdintasun-batzordeak gaitzeko eta prestatzeko dirulaguntzen programa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko uztailaren 21ekoa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena. Honen bidez, laguntzen deialdia egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan berdintasun-planak garatzeko, berdintasun-batzordeak gaituta.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003651

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza horien xedea da gizarte-eragileek Euskal Autonomia Erkidegoan beren jarduera garatzen duten enpresetan ezarri beharreko berdintasun-planak egin, negoziatu eta, hala badagokio, adosteko gaikuntza-jarduerak egiteko dirulaguntzak ematea, hala nola:

- Aholkularitza, kontsultak ebaztea, emaitzak ebaluatzea eta genero-berdintasunean adituek laguntza ematea berdintasun-batzordeen bidez berdintasun-planak negoziatzen eta egiten parte hartzen duten pertsonei.
- Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetan genero-berdintasunari buruzko araudia betetzeko kultura zabaltzeko sentsibilizazio- eta dibulgazio-ekintzak.
- Berdintasun-planak hobeto lantzeko eta negoziatzeko material egokiak egitea edo argitalpenak editatzea.

Dirulaguntzen programaren helburu nagusia da Euskal Autonomia Erkidegoko enpresetako berdintasun-planak negoziatzeko eta onartzeko indarreko legerian aurreikusitako berdintasun-batzordeak osatu behar dituzten pertsonek eginkizun horiek betetzeko behar duten gaikuntza eta ezagutza izatea. Era berean, asmoa da gizarte-eragileek laguntza-baliabideak eta -egiturak izatea berdintasun-planak eta -neurriak diseinatzeko, abian jartzeko eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Dialdiaren zenbatekoa 170.000,00 eurokoa da, eta EAEn ordezkaritza handiena duten enpresaburuen elkarteen eta sindikatuen artean banatu da. Dirulaguntza horiek emanda, aipatutako sindikatuek eta enpresa-erakundeek aurkeztutako jarduera-programak finantzatu dira. Programa horien xedea zen erakunde horietako kideen gaikuntza hobetzea eta ezagutza handitzea, EAEko enpresetako berdintasun-planak negoziatu eta, hala badagokio, onartu behar dituzten berdintasun-batzordeetan parte hartu behar duten pertsonen kasuan. Halaber, erakunde horiei berdintasun-planak eta -neurriak diseinatu, abian jarri eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko laguntza-baliabideak eta -egiturak ematea. Horrela, EAEko enpresetako berdintasun-planak egitea, negoziatzea eta onartzea sustatzen da, bai eta berdintasun-plan eta -neurri horiek ezartzeko, horien jarraipena egiteko eta ebaluatzeko baliabideak eta egiturak sortzea ere.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Sindikatuentzako eta enpresa-erakundeentzako dirulaguntza	1	3

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten erakunde sindikalei diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 11koa, Jaurlaritzako Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza duten Erakunde Sindikalei dirulaguntzak emateko deialdia egin eta dirulaguntzak ematea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025002930

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkaritzaren arabera banatzen dira.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurreikusitako diru-laguntzen finantzaketa 1.114.803,00 eurokoa da, 891.842,00 eurokoa 2025erako ordainketa-kreditua eta 222.961,00 eurokoa 2026rako konpromiso- krediturako., sindikatu-funtzioko erakunde banatuaren. Hori sindikatuen artean banatu da, ordezkaritzaren arabera. Aurreko diru-laguntzak emanez aipatutako sindikatuen hainbat jarduera ordaindu dira; horietatik, besteak beste, eta jarduera sindikalaren berezko gastuez gain, esparru soziolaboraleko prestakuntza-jarduerak nabarmendu beharrekoak dira, gehienbat erakundeetako kideei eskainiak. Jarduera sindikalak, zalantzarik gabe, eragin handia du gizartean, bai dagokion esparruagatik, bai barne hartzen duen pertsona sorta zabalagatik. Programa honi dagozkion zuzkidurak erakunde sindikalek berezko xedeen barruan egiten dituzten jarduerak diruz laguntzeko dira, eta erakunde horiek duten ordezkaritzaren arabera banatzen dira; horrenbestez, azken hori diru-laguntza zehazteko erreferentziako faktorea da, eta horrexek erabakitzen du deialdiaren diru-laguntzak emateko kontsignatutako kredituak banatzeko formula. Diru Laguntzen Programan diru-laguntzen 20 espediente izapidetzea aurreikusita zegoen. Azkenik, diru-laguntzak 21 erakunde sindikalei eman zaizkie ordezkaritzaren arabera; halere, nabarmendu beharra dago horiek guztiek 18.893 ordezkari sindikal biltzen dituztela EAEn guztira hautatu diren 19.671etik.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua	20	21

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako enpresetan asistentzia teknikoa

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 10ekoa, Jaurlaritzaren bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, 2025eko ekitaldirako Euskadiko gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko laguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/10/2504100a.pdf
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504100e.pdf
Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa honek, alde batetik, Gizarte Ekonomiako enpresetan kudeaketa-tresnen ezarpena bultzatu nahi du, haien administrazioa eta zuzendaritza eta, azken batean, lehiatzeko gaitasuna hobetuko duten tresnez hornitzeko.

Bestalde, Gizarte Ekonomiako erakundeen enpresa-finantzaketa errazteko laguntza-lerro bat ere jasotzen da, Gizarte Ekonomiatik eta Gizarte Ekonomiarako bultzatutako elkarrekiko berme-sozietateen bidez.

Programa honen ondorioetarako, honako hauek jotzen dira laguntza teknikoko ekintzatzat:

a) Urteko Kudeaketa Plana edo Aginte Koadro Integrala egitea eta ezartzea.

b) Kooperatibek eta lan-sozietateek merkataritza-kudeaketarako berariaz emandako aholkularitza.

c) Kudeatzailetzari laguntzeko zerbitzu espezializatuak kontratatzea, kudeatzaileen edo zuzendarien egitekoetan laguntzeko, edo kooperatiba eta lan-sozietateetako jardun-arloekin zerikusia duten zerbitzuak

d) Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plantzat hartzen diren ekintzak egitea, gomendio zehatzak barnean hartuta enpresaren lehiakortasuna hobetzeko eta, hala badagokio, finantzaketa lortzeko.

e) Erakundeak eraldatzeko tresna berriak ezartzea.

f) Enpresak digitalizatzeko tresnak ezartzea.

g) Enpresetan ingurumena hobetzeko ekintzak garatzea.

h) Ordezkaritza handiena duten gizarte-ekonomiako entitateek aldez aurretik azterlan ekonomiko eta finantzarioa egitea, euren entitate elkartuei bermeak emateko beharrezkoa den aldetik

i) Gizarte-ekonomiako enpresak sortzea eta eraldatzea eragozten duten oztopo juridikoak aztertzea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Kudeaketa aurreratuko tresnaren esparruan, 61 dirulaguntza-eskaera aurkeztu ziren, eta horietatik 9 ukatu egin dira. Horiei esker, 82 kudeaketa-tresna egin eta ezarri ahal izan dira, honela banatuta:

- Urteko kudeaketaren Planak / Aginte Koadro Integrala: 28
- Merkataritza-kudeaketako aholkularitza: 19
- Kudeatzerako laguntza: 17
- Zailtasunak dituzten enpresak suspertzeko plana: 8
- Eraldaketarako tresna berriak: 5
- Digitalizazio-tresnak ezartzea: 2
- Ingurumen-hobekuntza ezartzea: 0
- Abal eta bermeen sistema indartzeko azterlana: 2
- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzea eta eraldatzea eragozten duten oztopo juridikoak aztertzea: 1

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 440.000 euroko zenbatekotik, guztira 269.385,00 euroko laguntzak (%61,22) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako aginte- koadro integralen / kudeaketa-planen kopurua	45	28
Diruz lagundutako merkataritza-kudeaketako aholkularitza-saioen kopurua	20	19
Diruz lagundutako gerentzia-zerbitzuen kopurua	10	17
Diruz lagundutako krisian dauden enpresak suspertzeko planen kopurua	10	8
Diruz lagundutako erakundeak eraldatzeko tresna berrien kopurua	2	5
Diruz lagundutako erakundeak digitalizazio-tresna berrien kopurua	5	2
Ekonomia sozialeko enpresetan ingurumen-iraunkortasunerako diruz lagundutako neurrien kopurua	5	0
Abal eta bermeen sistema indartzeko azterlanaren kopurua	2	2
Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko eta eraldatzeko pizgarriak kentzen dituzten oztopo juridikoen azterketa-kopurua	0	1

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte ekonomiari ekitea eta bertan sartzeko laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 24koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez gizarte-ekonomian ekiteko eta gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzetarako deialdia egiten baita 2025eko ekitaldirako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/10/2504358a.pdf

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/10/2504358e.pdf

Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen helburu estrategikoak, funtsean, hiru dira:

1) Ekintzailetza kolektiboa sustatzea
2) Gizarte-ekonomiaren arloan enpresak eratzea eta sustatzea
3) Gizarte Ekonomian enpresak diren pertsonen kolektibo espezifikoak sartzea

Hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduerak:

1.- Gizarte-ekonomian espiritu ekintzailea sustatzeko eta gizarte-ekonomian enpresa-kultura zabaltzeko ideia-lehiaketak diseinatzea eta egitea.

2.- Gizarte-ekonomiako ereduaren agindu-emaileen sarea optimizatzea eta osatzea, eta tresnak (informazioa eta ezagutza) ematea, ekintzailetza kolektiborako ibilbideetan sartzeko ate izan daitezen.

3.- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzea, lehendik dauden enpresa-jarduera duten erakundeak gizarte-ekonomiako enpresa bihurtzeko kasuak barne.

4.- Gizarte-ekonomiako enpresa bat eratzearekin zuzenean lotutako sustapena, ondoren jarraipena eta enpresa-kudeaketan urtebeteko doako aholkularitza barne.

5. – Gizarte-ekonomiako enpresa bat sustatzeko asmoz, bideragarritasun ekonomiko eta finantzarioaren azterketa egitea, bi arrazoi posibletan oinarrituta: batetik, sozietate anonimo edo mugatu baten egoera kritikoa; bestetik, langileek zerbitzuak ematen dituzten enpresaren jabetza eskuratzeko, belaunaldi-erreleborik gabe.

6.- Gizarte-ekonomiako enpresetan kolektibo jakin batzuk bazkide eta langile mugagabeekin sartzea: besteren konturako langabeak, desgaitasuna dutenak eta nekazaritzako elikagaien kooperatibetako bazkideak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

- Gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko 4 entitate sustatzailek garatutako sustapen-jarduerak finantzatu dira.
- Lurralde Sustapen Planifikatuari dagokionez, sustapeneko 5 nodo-entitateren lanari lagundu zaio eskualdeko eremuan.
- 3 bideragarritasun-azterlan egiteko dirulaguntzak eman dira, egoera larrian dauden baltzuak Gizarte Ekonomiako enpresa bilakatzeko.
- Gizarte-ekonomiako enpresak eratzen eta gero sendotzen laguntzeko euskal sare publiko-pribatua sustatzeko eta indartzeko laguntzei dagokionez, hauek dira emaitzak:
    - Ekintzailetza sustatzeko eta enpresa-kultura zabaltzeko ideia-lehiaketak egitea, Gizarte Ekonomiaren eremuan soilik: hiru proiektu aurkeztu dira, eta hirurek jaso dute laguntza ekonomikoa.
    - Gizarte Ekonomiaren ereduaren preskriptoreen sarerako ekintzailetza kolektiboa sustatzeko tresna batzuk sortzea: 1 laguntza-tresna egiten lagundu da.
    - Gizarte-ekonomiako enpresa gehiago sortzea eta eraldatzea eragozten duten oztopo juridikoen azterketa: diruz lagundutako 3 txosten.

Aurrekontu-betearazpena: *

	Aurrekont.	Eginda
Ideien lehiaketa	700.000	368.856,40
Preskriptoreen sarea		
Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak		
Kooperatibak eta lan-sozietateak sortzea	2.530.000	-
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileak		
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketak		
Gizarte-ekonomiako enpresetan bazkideak sartzea	795.000	244.442,41
TOTAL	4.025.000	613.298,81

* Datuak II. kapituluko eta IV. kapituluko programei buruzkoak dira soilik. Enpresak eratzeari eta sustatzeari buruzko III. kapituluko laguntzak Ekonomia, Lan eta Enplegu Saileko sailburuordearen onespenaren zain daude txosten honen datan, eta, ondoren, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak fiskalizatuko ditu. Beraz, ezinezkoa da III. kapitulu honetako datuak ematea.

Erabilgarritasuna eta eragin soziala: III. kapituluko laguntzen ebazpena ezagutu bitartean, historikoki, ekintzailetza-programa jo daiteke Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren programarik garrantzitsuena,

kualitatiboki eta kuantitatiboki. Argi dago dirulaguntzen programa hau oso lagungarria dela gizarte-ekonomiako enpresak sortzeko, bai alderdi kooperatiboan, bai lan-sozietate gisa. Horren erakusgarri da sozietate berriak sortzeko parametroek egonkor jarraitu dutela azken urteetan, eta enpresa-jarduera berriak eta lanpostu berriak sortu direla. Bazkideak sartzeari buruzko IV. kapituluak, egikaritze-maila ikusita, dirulaguntza-irizpideei buruzko gogoeta behar du.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Sustatutako lehiaketen kopurua	2	3
Planifikatutako lurralde-sustapeneko plan lagunduak	4	5
Gizarte-ekonomiako ereduen balio-proposamenak LHko zentroetako, institutuetako eta unibertsitateetako orientazio zerbitzuetan	2	daturik gabe
Kooperatibak eta lan-sozietateak eratzeko oztopo juridikoak aztertzea	2	3
Sortutako kooperatiba eta lan-sozietateen kopurua	140	daturik gabe
Sortutako Gizarte Ekonomiako enpresetan enplegua sortzea	520	daturik gabe
Diruz lagundutako erakunde sustatzaileen kopurua	4	4
Enpresetan egindako bideragarritasun-azterketen kopurua	10	3
Prestakuntza espezifikoa jaso duten enpresen bazkide langileen kopurua	daturik gabe	daturik gabe

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Elkarte egiturak babestea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko urriaren 14koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekonomiako enpresen eta erakundeen elkarte-egiturak sendotzeko laguntzen deialdirako oinarriak onartu eta 2025erako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025004491

Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza ildo honen helburua honako hau da: nortasun juridiko propioa duten eta interes komunak ordezkatu eta babesteko honako hauek elkartzen dituzten Gizarte Ekonomiako erakundeen elkarte Egiturak finkatzea:

a) Lan sozietateak eta lan elkartuko kooperatibak.
b) b) Lan elkartukoak ez diren kooperatibak eta izaera konfederaleko elkarteak eta gizarte-ekonomiako erakundeak integratzeko erakundeak
c) Ekonomia solidarioko elkarteak eta enplegu zentru berezien elkarteak.
d) Langile autonomoen sektore arteko erakundeak, gutxienez bi urteko antzinatasuna dutenak.

Programa honen kontura emandako laguntzak erakunde onuradunen egitura gastuak finantzatzeko erabiliko dira (langile gastuak eta funtzionamendu arrunteko gastuak, funtsean).

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian, Euskadiko gizarte-ekonomiarekin lotutako 10 elkarte-egiturari eusten lagundu ahal izan zen, eta egitura horien izaera honako hau izan zen:

- Lan elkartuko kooperatiben 2 federazio.
- Elkarlanekoak ez diren kooperatiben 2 federazio.
- Enplegu-zentro berezien 4 elkarte.
- Langile autonomoekin lotutako elkarte bat.

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 755.800 euroko zenbatekotik, guztira 755.800 euroko laguntzak (% 100) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Lan-sozietateen eta lan elkartuko federazioen elkarteen kopurua	2	2
Gizarte-ekonomiako konfederazioen eta bestelako elkarte/federazioen kopurua	3	3
Ekonomia solidarioko elkarteen eta enplegu-zentro berezien kopurua	3	4
Sektoreko langile autonomoen elkarteen kopurua	1	1

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gizarte-ekonomiako arloan Prestakuntzarako dirulaguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 17koa, Jaurlaritzaren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, 2025eko ekitaldirako gizarte-ekonomiako prestakuntza, dibulgazio eta ikerketarako laguntzetarako deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/bopv2/datos/2025/10/2504205a.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504205e.pdf

Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Laguntza-lerro honen helburua gizarte-ekonomiaren prestakuntza- eta dibulgazio-jarduerak sustatzea da. Bazkideei beren enpresak eta jarduerak hobeto ezagutzeko tresnak emango zaizkie, erakundeen balio demokratiko eta solidarioak gizartean zabaltzeko.

1) Prestakuntza-jarduerak:

a) Gizarte-ekonomiako prestakuntza espezifiko eta bereizira bideratutako ekintzak, unibertsitate-, unibertsitate-eta/edo sozietate-eremuan kooperatibismoari edo lan-sozietateei buruzko ezagutza oro har hasteko, hobetzeko edo kualifikatzeko.

b) Gizarte Ekonomiako unitate didaktikoak diseinatu eta egitea

2) Gizarte-ekonomia hedatzeko jarduerak:

a) Kooperatiba eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak editatzea.

b) Aldizkako jardunaldiak egitea.

c) Gizarte-ekonomiako enpresak eta erakundeak ikusarazteko ekitaldi bereziak egitea, hala nola oroitzapenezko egunak, sari garrantzitsuak ematea eta antzeko garrantzia duten gertaerak.

d) Gizarte-ekonomia hedatzeko jarduerak egitea. Halakotzat hartuko dira gizarte-ekonomiari buruzko informazio-jarduerak eta lurralde-eragileekin egindako kontrasteak, bai eta edozein formatu eta euskarri grafikotan, irrati-prentsan, telebistan, interneten eta multimedian egindako bestelako hedapen-jarduerak ere.

3) Gizarte-ekonomiako ikerketak.

a) Ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren iraunkortasuna

b) Lankidetza-espazioak

c) Unibertsitateko argitalpenak

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian lortutako emaitzak: 27 dirulaguntza eman zitzaizkien hainbat erakunde eskatzaileri, eta 6 ukatu ziren. Diruz lagundutako proiektuek honako zenbatespen hauek egiten dituzte aurkeztutako jarduerak eta jarduketak egiteko:

- Gizarte-ekonomiako prestakuntza espezifiko eta bereizira bideratutako ekintzak: kalkuluen arabera, 700 pertsonak baino gehiagok jaso dute prestakuntza mota hori.
- Unitate didaktiko egokiak diseinatzea eta prestakuntza-jarduerak sistematizatzea: 3
- Kooperatiba eta lan-sozietateei buruzko aldizkako argitalpenak argitaratzea: diruz lagundutako 5 argitalpen.
- Aldizkako jardunaldiak egitea: 7 jardunaldik Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren laguntza publikoa izan dute.
- Gizarte Ekonomiako enpresak eta erakundeak ikusarazteko ekitaldi bereziak: 2
- Edozein formatu eta euskarri grafiko, irrati prentsa, telebista, Internet eta multimediako hedapen-jarduerak: 4
- Diruz lagundutako ikerketa-proiektuak: 4
- Unibertsitateko argitalpenak argitaratzea: 5

Aurrekontua gauzatzea: Aurreikusitako 910.000 €etatik, 724.252 €ko dirulaguntzak eman ziren (%79,59).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Enpresa edo erakunde onuradunen kopurua	45	daturik gabe
Prestatutako ikasleen kopurua	700	700
Diruz lagundutako LHko ikastetxeetarako unitate didaktikoak	1	3
Zabalkunde-ekintzak egiten diren unibertsitateak	3	3
Egindako jardunaldien kopurua	10	7
Diruz lagundutako argitalpenen kopurua	5	5
Egindako ekitaldi berezien kopurua	5	2
Zabalkunde orokorreko ekitaldien kopurua	5	4
“Gizarte Ekonomia” eredua integratzeko identifikatutako enpresak	5	daturik gabe
Egindako eta diruz lagundutako ikerketen kopurua	4	4

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen arteko lankidetza

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko irailaren 17koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetzarako laguntzen deialdirako oinarriak eta laguntza horien deialdia egiten baita 2025. urterako.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/bopv2/datos/2025/10/2504101a.pdf

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2025/10/2504101e.pdf

Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Elkar-lankidetzak abantaila lehiakorrak eskaintzen ditu. gizarte-ekonomiako enpresen arteko lankidetza hori ez da soilik estrategia bat, enpresa horien jarduera ekonomiko guztien hasiera eta helburua ere bada: gizartean eredu ekonomikoa aldatzen laguntzea, ekonomia demokratizatzea, gizarte-ekonomiaren idealak gizarte osora zabalduz.

Dirulaguntza ildoaren xedea honako jarduera hauetakoren bat egiteko laguntza ematea da:

a)Gizarte-ekonomiako enpresak ordezkatzen dituzten elkarte-erakundeek beren enpresa elkartuentzat egindako lankidetza-proiektu bat prestatzetik eta ezartzetik eratorritako gastuak.

b) Elkartekideen arteko estrategia bateratuak diseinatzea, jarduerak berritzeko edo dibertsifikatzeko.

c) Akordioak egiteko eta formalizatzeko eta enpresen arteko lankidetzarako enpresak edo egiturak sortzeko beharrezkoak diren gastuak, gizarte-ekonomiako enpresak bat egiteko beharrezkoak direnak barne. Era berean, programa honen kontura azterketa- eta diseinu-fasean ezarritako eta diruz lagundutako lankidetzako egiturak eta akordioak finkatzeko gastuak.

d) Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea prestatzea eta formalizatzea.

e) Gizarte-ekonomiako erakundeek bat egin ondoren enpresaren batean bazkide langile gisa sartu diren pertsona fisikoek kapital sozialari egindako ekarpena. Emandako kapital soziala bakarrik hartuko da kontuan, bat egindako edo xurgatutako erakundetik ez datorrena.

f) Euskadin gizarte-ekonomia ordezkatzen duten erakunde gorenek elkartekideentzat egindako lankidetza-jarduerak, baldin eta 2.1a) artikuluan zehaztutako helbururen bat gauzatzea ahalbidetzen edo errazten badute, eta elkartekideen artean lankidetzan diseinatutako mekanismoak eta tresnak inplementatzea ahalbidetzen edo errazten badute.

g) Familia guztiek partekatzen dituzten erronkak identifikatzeko eta Gizarte Ekonomiako familiek gizartean duten eragin positiboa ezagutaraziko duten mezuen hedapena programatzeko egindako lankidetzako jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian 9 eskabide aurkeztu ziren. Jarduera hauek egitea erraztu da:

- Enpresen arteko Lankidetzarako proiektuak eta haien ezarpena: 3
- Akordioak eta/edo enpresak edo egiturak sortzea: 1
- Gizarte-ekonomiako enpresen bat-egitea: 1
- Gizarte Segurantzako elkarte-egiturek elkartekideentzat sustatutako lankidetzako jarduerak: 1
- Erronka partekatuak: 3

Aurrekontu betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 267.000 euroko zenbatekotik, guztira 107.690,00 euroko laguntzak (% 40,33) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagundutako proiektuetako kopurua	15	3
Akordio-kopurua eta kolaborazioak diruz lagundutakoak	5	1
EGES: familia guztien proiektu bateratua	1	2

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresaren erantzukizun soziala eta langileen parte-hartzea

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko ekainaren 23koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen gizarte-erantzukizuna ezarri eta enpresetan langileen partaidetza sustatzeko lagun tzen deialdirako oinarriak, eta 2025. urterako deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

https://www.euskadi.eus/web01-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2025003205

Ebazpena: Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratzeke.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2025. urteko deialdi honetan bat egindako laguntza-ildo bat da, eta enpresaren erantzukizun sozialaren ildoak eta langileek ILZn parte har dezaten sustatzeko ildoak jasotzen ditu. Ildo horren helburu nagusia da euskal Gizarte Ekonomiaren printzipioak eta balioak sustatzea, giza kapitalaren partaidetza bultzatuz eta enpresen erantzukizun soziala sustatuz, ekonomia gizatiarrena eta kohesionatuena bultzatuko duen eraldaketa soziala bilatuz.

Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak:

a) Enpresetan enpresaren gizarte-erantzukizuna ezartzea, iraunkortasun-memoriak eginez. Jasangarritasun-memoriek GRI, SG21, ISO2300 metodologia edo antzekoak jarraitu beharko dituzte. Gizarte-kontabilitate aplikatuko azterlanak egitea ere diruz lagunduko da.

b) EGEren kultura hedatzeko eta ikertzeko jarduerak, eremu publiko, enpresarial eta korporatiboetan.

c) Langileek gizarte-ekonomiako enpresen kudeaketan eta organoetan duten parte-hartzea hobetuko duten metodoak eta tresnak lantzea eta ezartzea.

d) Sozietate-itun edo -kontratu bat egitea, gizarte-ekonomiako enpresetan sozietate-erreleboa arautzeko.

e) Gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresetan langileek parte hartzeko plan bat egitea eta ezartzea.

Diruz lagundutako ekintza guztiak 2025ean egin behar ziren.

Erakunde onuradun izan daitezkeenak:

1.- Enpresa txiki eta ertainak, bai eta iraunkortasun-memorietarako enpresa-elkarteak ere.

2.- Gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresak, enpresak GJHei egiten dien ekarpenaren diagnostikoa egiteko.

3. - Gizarte-ekonomiako enpresak, enpresak GJHei egiten dien ekarpenaren diagnostikoa egiteko.

4.- Unibertsitateek, enpresaburuen elkarteek eta unibertsitateen sustapenean espezializatutako erakundeek EGE edo kudeaketa aurreratuan: zabalkundeko jarduera espezifikoetarako.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

2025eko ekitaldian emaitza hauek lortu ziren, eta Gizarte Ekonomiako zuzendariaren ebazpen bakarrean dirulaguntza jaso zuten jarduerak honako hauek izan ziren:

- Enpresetan EGEa ezartzea, GRI (Global Reporting Initiative) iraunkortasun memoriak lantzearen bidez: 8
- Gizarte-ekonomiako enpresetan Ebaluazio-Diagnostiko bat egitea: 2
- Gizarte-ekonomiakoak ez diren enpresetan Ebaluazio-Diagnostiko bat egitea: 10
- EGE-aren kulturaren difusioa: 7

Aurrekontu-betearazpena: Dirulaguntza arautzen zuen deialdian aurreikusitako 290.000 euroko zenbatekotik, guztira 156.015,00 euroko laguntzak (% 53,80) onartu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Ezarritako EGE planen kopurua	20	4
EGE kulturaren hedapen eta ikerketa kopurua	10	2
Gizarte Ekonomiako organoetan eta kudeaketan izandako parte-hartzearen hobekuntza-kopurua	10	3
Partaidetza Planaren kopurua	5	5
Gizarte-ekonomiako enpresetan parte hartzeko planaren kopurua	3	2

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Enpresen eta erakundeen zuzendaritza-organoetan emakumeen ahalduntzea sustatzea eta emakumeen talentua txertatzea helburu duten elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko gainerako entitateei

2.- Araua

AGINDUA, 2025eko maiatzaren 7koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, zeinaren bidez egiten baita emakumeen ekintzailetza sustatzeko edota enpresa zein erakundeetako zuzendaritza-organoetan emakumeen talentua sartzeko xedea duten elkarteei eta irabazi-asmorik gabeko bestelako erakundeei 2025ean dirulaguntzak emateko deialdia eta horien arauketa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

AGINDUA: https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2025/05/2502086e.pdf
WEB DEIALDIA: https://euskadi.eus/zerbitzuak/1112305
EBAZPENA: Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordearen 2025eko abuztuaren 18an
Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen erregistroa.

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Dirulaguntzen programa honen helburua da emakumeen ekintzailetza sustatzea eta emakumeen talentua sartzea enpresetako eta erakundeetako zuzendaritza-organoetan.
Hauek dira emakumearen ekintzailetzari laguntzeko sustapen-jarduerak eta helburuak:

- Erakunde onuradunen instalazioak eta egoitza sozialak mantentzeko eta funtzionatzeko beharrezkoak diren jarduerak eta/edo zerbitzuak.
- Erakunde onuradunak sendotzen, indartzen eta garatzen lagunduko duten jarduerak eta/edo zerbitzuak.
- Emakumeen ekintzailetza sustatzeko eta emakumeak buru dituzten enpresak edo enpresa berriak suspertzeko jarduerak.
- Enpresa-zuzendaritzan eta zuzendaritza-organo eta -postuetan emakumeak sartu ahal izatea laguntzeko jarduerak.
- Emakume enpresaburu eta/edo zuzendarien asoziazionismoa garatzeko jarduerak, eta erakundeen eta emakumeen arteko lankidetza-sareak sortzekoak.
- Erabakiguneetan emakumezko enpresaburuen, zuzendarien eta profesionalen ikusgarritasuna sustatzeko jarduerak.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Aurrekontuaren gauzapena % 100ekoa izan da (175.000,00 €), bi dirulaguntza lerrotan banatuta, baliabide ekonomikoak helburuaren arabera esleitzeko:

1. dirulaguntza-lerroa: Oinarrizko zenbatekoa eta zenbateko aldakorra (150.000 €)

2. dirulaguntza-lerroa: bazkideen ordezkaritza txikiena eta/edo finantza-nahikotasun txikiena duten erakundeen hazkundea bultzatzea. Zenbateko aldakorra (25.000 €).

7 erakunde eskatzaileetatik 6k jaso dute dirulaguntza, elkarte baten eskaera ezetsi egin zelako, dirulaguntzaren onuradun izateko oinarrizko baldintza ez betetzeagatik, Aginduaren 5.1 oinarrian eta II. eranskineko irizpideetan ezarritakoaren arabera.

Baremazio-irizpideak eta elkarte bakoitzak lortutako puntuazioak kontuan hartuta, bakoitzari dagokion zenbatekoa esleitu zitzaion, eta honako hau ondorioztatu zen:

6 elkarteei esleitutako batez besteko zenbatekoa 29.166,66 € izan da.

Elkarte batek jaso duen gutxieneko kopurua 25.416,66 € izan da.

Elkarte batek jaso duen gehieneko zenbatekoa: 31.666,66 € izan da.

Dirulaguntza honen erabilgarritasuna elkarte txikien erresilientzia sustatzean datza, funtzionamendu-gastuei aurre eginez, eta elkarte guztientzat, emakume ekintzaileen eta zuzendarien arteko laguntza- eta networking-sareak gaituz eta sortuz.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Diruz lagunduko diren erakundeen kopurua	7	6
Lagundutako edo hobeto ikusarazitako emakume zuzendarien kopurua	80	90
Erakundeak lagundutako ekintzailetza-proiektuak dituzten emakumeen kopurua	35	53
Egindako prestakuntza-, sentsibilizazio- eta ikusarazte-jardueren kopurua	220	220

1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegorako eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Lan Ikuskatzaileordeen Kidegorako sarbidea prestatzeko laguntzak

2.- Araua

Agindua, 2023ko irailaren 27koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuarena, zeinaren bidez bekak deitzen eta arautzen baitira, Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegoko eta Lan Segurtasun eta Osasuneko eskalako Lan Ikuskatzaileordeen Kidegoko sarbidea prestatzeko 2023rako, 2024rako eta 2025erako

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Araua eta Deialdia:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/10/2304590e.pdf
Ebazpena:
https://www.euskadi.eus/web01-bopv/eu/bopv2/datos/2023/12/2305759e.pdf

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegoan eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Eskalako Lan Ikuskatzaileordeen Kidegoan sartzeko prestatzeko beken deialdia da, Euskadiko Lan Ikuskaritza indartzen laguntzeko, autonomia-erkidegoaren eskumeneko gaietan

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Lortutako emaitzak: deialdia urte anitzekoa da eta 2 urte eta hiru aurrekontu-ekitaldi hartzen ditu; izan ere, ordaindutako lehenengo hilekoa 2023ko abendua izan zen, eta, beraz, 2025eko azarora arte banatuko da hilekotan. Deialdia 6 bekari buruzkoa zen, 3 beka kidego bakoitzeko, Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaileen Kidegoko eta Laneko Segurtasun eta Osasuneko Eskalako Lan Ikuskatzaileordeen Kidegoko, eta Ikuskatzaileen Kidegoko 3 beka eta Ikuskatzaileordeen Kidegoko beka bat esleitu dira.

Aurrekontuaren gauzatzea: beken esleipenaren ondoren esleitutako aurrekontu osoa gauzatu da, eta guztira 4 beka izan dira, deialdian 6 posible ziren arren.

Erabilgarritasun eta eragin soziala: LEPen deialdiei eta LEP horietako lanpostuak Euskal Autonomia Erkidegoan esleipenari lotutako helburuak lortzera bideratutako prozedura da. EPEko deialdiak urtero egiten dira, eta orain arte bekadunek ez dute gainditzea lortu; hala ere, helburua epe ertainean da, eta, beraz, behin betiko balorazioa hautaketa-prozesuetako hainbat deialdi egin ahala egin beharko da.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Izapidetzen diren beken espedienteen kopurua	6	4